



Nu!



Herritar ugari
Patxi Seguroaren epaiketan



Badoa San Joan,
badator Santixabel



Alkartasuna
Elkartean
bertako
produktuak
salgai

Gure lurretan
hazitako produktu
hoberenak zure
eskura

Alkartasuna

Nekazarri kooperatiba elkartea

Ugarte Industrialdia 12

Tttaa. / Faxa: 943 361 114

20170 USURBIL, Gipuzkoa

alke@alke.com

Txirrikitutik !

Ekainean sartu gara eta dagoeneko jai giroan murgilduta gabilta. Jendeak lehen gehiago parte hartzen zuela, aurrekoak oraingoak baino sanoagoak zirela, bestelako sentimendu batekin ospatzen zirela... maiz entzuten diegu helduei. Taberna, diskoteka eta txosna modernorik ez zen. Guztiak herriko plazan biltzen ziren. Emakumeak zein gizonak, eskusoinu txikia eta panderoa, edo ttuntun eta danbolina lagun zutelarik plazako protagonistak bihurtzen ziren. Ondoko argazkia horren adibide garbia da. 20-30 hamarkada inguruan aterata dago, Zubietako errebote plazan. Bitxia bada ere denak gizonetzkoak dira eta batzuk dotore jantzita ageri dira, txapel eta guzti. Gaur egun horrelako argazkiren bat ateratzeko aukerarik izango ote da Zubietako jaietan? Zubietarrek dantza egitea gustuko dutela entzun dut, ea ba aukera suertatzen den.

Zaloa Arnaiz Ibarguren



Egilea: Ezezaguna, 20-30 hamarkada ingurua, Zubietako jaietan
Jabetza: Kutxa Fototeka

N u !

Argitaratzailea: NOAUA! Kultur Elkartea
Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf.: 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com
www.noaua.com

Koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Publizitatea: Maider Alustiza, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Oxkar Santamaria, Maria Angeles Arruti, Maria Jesus Urbietta, Jone Eizmendi, Ekiñe Olaizola, Iñaki Labaka, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfonso Vidal, Alazne Begiristain, Ana Urdangarin, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Eneko Harreguy, Salome Portu, Pello Aranburu, Joseba Zubeldia, Imanol Goenaga, Andoni Udabe, Eukene Kamino, Aloña Pulido, Isaak Muñoz, Olatz De Miguel, Iñaki Agirresarobe. Denborapasak: LUMA, O.E.

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Bazkidetza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio Kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Maider Alustiza, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza.

NOAUA! hamaboskariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

NOAUA! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia:
10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

AZALA

Iaz, Santixabeletan ateratako erretratua.

Aurkibidea

ZUTABEAN, NEREA ZINKUNEGI _____ 4. ORR.

MIEL ARRASTOA MENDIZALEA _____ 5. ORR.

HERRI ANTZERKIKO IRUDIAK _____ 10. ORR.

HASI DIRA SAN JOANAK KALEZARREN _____ 12. ORR.

Pasa den asteburuan hasi ziren San Joanak Kalezarren. Ekainaren 24an, meza eta gero, duela 35 urteko dantzariak omenduko dituzte.



ENPRESETAN EUSKARA SUSTATZEKO PLANA _____ 13. ORR.

XABIN AIZARNAK IKASTOLA UTZIKO DU _____ 15. ORR.

ESKUBALOI BI TALDE, KATALUNIAN _____ 17. ORR.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herra!

Zutabea !



NEREA ZINKUNEGI

Egungo gazteak... helduon ispilu

Gaur egungo gazteak diren bezalakoak dira; garaiak, giroak, bizi dugun ekonomia mailak, politikak, "inkluso" klimak ere eduki lezake eraginik beraien izakean, eta jarreran. Kontu izan, noski, orokorkeriatan ari naizela.

Gaur egungo gazteak saldu ezinik dabiltzan lokalak alokatu eta bertan biltzen dira dozenaka. Bertan zertan dabiltzan ez dakigu, ezta jakin beharrik ere... Gaur egungo gazteak kalean apenas ikusten diren.

Gaur egungo gazteak herriko festak antolatzekeo garaia iritsi eta ez omen dira azaldu ere egin beraien gustuko proposamenak egitera: kontzertuak direla, ikuskizunak direla...

Gaur egungo gazteak ajolagabeak omen, arduragabeak, alferrak, nagiak, heldutasun gutxikoak, berekoiak, errespetu arrastorik gabekoak... gogoratu berriro ere

orokorkeriatan ari naizela.

Gaur egungo gazteak diren bezalakoak dira eta kitto!

Ez dute seguru aski alde handirik izango gu geu 15-25 urte bitartean ginen gazte haiekin. Ahaztu egiten zaigu ordea nolakoak izan garen. Egin dezagun memoria atzera... zein ez da inoiz "sobratua" izan? Zein ez da inoiz "jartoa" izan?

Gaur egungo gazteek nahi lituzketen moduko helduak ote garen galdetu al diogu inoiz gure buruari? Seme-alabek nahi lituzketen moduko gurasoak ote garen galdetu al diogu inoiz gure buruari?

Ilobek nahi lituzketen moduko izeba-osabak ote garen galdetu al diogu inoiz gure buruari?

Bilobek nahi lituzketen moduko amon-aitonak ote garen galdetu al diogu inoiz gure buruari?

Galdera deserosoegiak agian?

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai

Noaua!
www.noaua.com

**ABERASTU ZAITEZ!
EGIN ZAITEZ BAZKIDE**

Bazkideza eskaria

Isen-deiturak: _____ Jaiotze-data: _____
 Herrialdea: _____ Adina: _____ Sexua: _____
 Naf. zenbakia: _____
 Herrialdea: _____
 Posta-kodea: _____ Herria: _____
 tel: _____ 2. tel: _____
 e-mail: _____

Bazkide luaxa:

30€ Uztalezan kontu korrontetik kobratuko da

Ordaindua mediar: (luaxa urtean behin)

Darabasa: _____
 Kontu korronte zenbakia: [20 digituak, mesedez]

*Informazio gehiago:
943 360 321

Zatoz!



Miel Arrastoa, mendizale nekaezina

Mendizale talde bat, urtero, mahai baten inguruan biltzen da Aramako elkarte batean. Tartean, Miel Arrastoa. Maiatzaren 28ko bazkarian, Mielekin batera ziren Jone Eizmendi, Joxe Mari Arrospide eta Joxe Ramon Iburguren. Guztira, 18 bat lagun. Espero ez bazuen ere, bazkariko protagonista bilakatu zen gure solaskidea. Mendizale lagunek oroi-garri bat oparitu baitzioten. Ez da gutxiagorako. 76 urterekin, fin-fin ibiltzen da mendian. Hamabi ordutik gorako ahalegina eskatzen duen arren, duela 23 urtetik hona, urtero, Ostegun Santuan egiten den Andatza-Arantzazu martxan hartu du parte.

NOAUA! Zenbatetan osatu duzu Andatza-Arantzazu arteko mendi zeharkaldia?

Miel Arrastoa. 23 urtez jarraian. Tartean, beste bueltaren bat bai; baina jarraian, 23 urtez.

N. Urtero lagun talde berdinarekin?

M. A. 6 edo 7 lagun hasi eta gero Donostiakoak, Zarautzkoak... hurbiltzen hasi hituan. Baina beti hemendik ateratzen gaituk, frontoi atzetik, goizeko 05:00etan.

MIEL ARRASTOA

“Karga zeukeat txikia. Horretan bentaja. Batek esaten zidak, ‘nik zure karga baneuka!’. Nik erantzun, ‘eta nik zure urteak baneuzka’. Horrela ibiltzen gaituk”

N. Dagoeneko abisurik edo kartelik jarri beharrik ez.


M. A. Bezperan, elkarri esaten zioagu, “bihar beti bezala”, eta kitto.

N. Zenbateko iraupena du martxak?

M. A. Ibiltzen, 12 ordu. Ibiltzen, gelditu gabe. Orduko 5 kilometro, gutxi gora behera.

N. Beraz, martxa bizia eramango duzue.

M. A. Normala. Inportantea dek ezinean ez joatea. Taldean joaten gaituk baina bakoitza bere erritmoan. Lasai joaten gaituk, bidean bazkalduz. Lehen ez. Lehen



MAIATZAREN 28AN JASO ZUEN LAGUNEN ESKER ONEKO OPARIA.

motxila bizkarrean hartu, bidean pixka bat jan eta segi!

N. Hamabi ordutan osatzen al duzue?

M. A. Goizeko 5:00etan ateratzen gaituk eta iristerako, iluntzeko zazpiak edo.

N. Mendirako joera nondik datorkizu?

M. A. Gu beti ibili izan gaituk fabrian lanean (Michelinen). Gero handik atera eta berriz ere lana egin behar... Duela 30 bat urte, ordea, igandetan joaten hasi gintuan. Pixkanaka gustatu eta horrela. Aralar aldekoak azken urteotan ezagutu dizkiat.

N. 76 urterekin mendian ibiltzeko, sasoi onean izango zara.

M. A. Nik karga zeukeat txikia. Horretan bentaja. Batek esaten zidak, “nik zure karga baneuka!”. Eta nik esaten zioat, “eta nik zure urteak baneuzka!”. Horrela ibiltzen gaituk.

N. Jateko ezer berezirik eramaten al duzu?

M. A. Gauza gutxi. Piko batzuk, gaileta batzuk eta txokolate pixka bat. Janari arina.

N. Ura ere, noski.

M. A. Ura bai. Baina nik gutxi edaten diat. Besteak ez, besteak beti ura edaten. Askok edaten ditek. Nik izerdirik ez diat ateratzen eta!

N. Lagunek Araman emandako oparia espero al zenuen?

M. A. Ezta pentsatu ere. Nerbioso samar jarri ninduan, berez, hala nauk. Eskertzekoa dek, gauza polita izan huan.

Zizurkilen jaiο, Michelinen lan egin

Zizurkilgoa da jaiotzez. Gaztetan, Zordea, Michelinen hasi zen lanean. Urte eta erdiz, bizikletan osatzen zuten Zizurkildik lantokirako bidea. “Ez huan, orain bezala, ez kotxerik eta ez autobusik. Bidean ere, enbarazu gutxi”, adierazi digu Miel Arrastoa. 1954an, ordea, Kalezarrera etorri zen, apopilo, Portalea baserrira.

Andatza-Arantzazuko martxa ez ezik, Tolosako XIV ordu ospetsuak maiz osatu ditu. Ez da prestaketa berezirik egin behar. Mielek esan digunez, “Tolosakoa ailegatzean preparatzeko eta esaten ditek. Fama zeukak eta jende asko ateratzen dek. Batzuk orpoa urratu, beste batzuk jarraitu ezinik... Baina orain oinetako onak zeudek. Nik sekula ez diat preparatu. Ibiltzea dek inportantea. Ibilita egotea”.

Garai batean albarkekin ibiltzen ziren baina gaur egun, aukeran, botak nahia-go Mielek: “Ni beti botarekin ibiltzen nauk. Zapatilak eta ez. Takoiarekin hobeto moldatzen nauk”.

IÑAKI
LABAKA

Txokoalde

Basurde arrastoak Irabin

Auzoko baserritarrak kezkatu agertu zaizkigu Irabi aldeko lurretan basurdeen arrastoak azaldu direlako. Azken egunetan hainbat sailetan, basapizti hauek arto landareak eta baita ere piper landareak zeharo marraskatu dituzte kalteak eraginez. Indartzen ari diren landareak, abere hauek txikitu ondoren ez dute ezertarako balio. Bapatean duela bi urteko kontuak gogoratu dituzte. Orduan, artoa biltzeko zegoela, agian mendian jana topatu ezinik basurdeak txikizio handiak egin zituzten arto sailetan. Hitz egin zen Diputazioak animaliek eragindako kalteak ordainduko zituela baino dena hutsean bukatu zen. Orain egindako pikardiak ez dira oso larriak izan, hala ere baserritarrak beldur dira etorkizunean beroak gogor jotzen badu eta bazter guztiak lehor jarraitzen badute, basurdeak gehiagotan jaitziko ez ote diren menditik jan bila, hau ez ote den izan azkeneko bisita. Ze neurri hartu?

Egunak luzatzen direnean eta eguzkiak gogor berotzen duenean, auzoan beste bizitasuna sumatzen da.

Elkarte aurreko plazatxoan urte osoan baino jende gehiago nabarmentzen da, bertako mahaiak beti estimazio handia izan dute berriketan eta jan edanean egoteko. Hemendik aurrera gainera inguruko zuhaitzek itzala ederra emateko gauza dira, behin hostoak hasi zaizkienean. Bestalde, noizbehinka ezusteko bisitak izaten ditugu. Duela aste pare bat Jose M^a Arrate Athletic-eko lehendakari ohia gerturatu zitzaigun elkartera taberna zelakoan, baina ezer hartu gabe aldameneko jatetxe batera bazkaltzera joan zen. Arratsaldean, berriz, telebistan ikusi genuen Anoetan Olaizola eta Irujo arteko pilota finalean. Ez zuen plan makala egin!

Bukatzeko, urte sasoi honetan ere, Akerra Gaztetxean kontzertuak ugaritu egiten dira. Ekainean bi izan dituzte, azkenekoa 18an. Bertan Sophorosyne taldeak (auzoko gazteak eta beraien lagunak osatua) eta Rexinto 19 taldeak jo zuten. Jende dexente hurbildu zen kontzertura gau giro ederra baitzegoen egun gutxian bero izugarria jasan ondoren.

IÑAKI
AGIRRESAROBE

Kaleberri

Urtebeteko lana ordubeteen eskainia

Ekainaren 11 igaro ondoren, atzean gelditu da "Sarrailako giltza"ren prestakizun lana. Joan den uztailan hirukote bat (Ixabel, Ibai eta hirurok) gidoiaren gaia eta edukina astero prestatzen jardun ginen bost hilabetetan. Honen ondoren, errepaso bat eman eta hariz ongi josi, herri-antzerkirako ahal den ongien txerta zedin. Eskema eta eszenak, nolabait egituratuak zeuden.

Gero, atrezzo eta jantzien diseinuaren lana etorriko zen. Liburuetan arakatu eta aroari zegokion jantziak topatu ostean, oihal egokiak erosi. Lan honetan beste 5 hilabeteen jardun da beste emakume talde bat. Gainera, auzolanean, musu-truk alegia.

Bestalde, hormirudiak ere atontzen beste lan talde bat jardun da buruari eta margoketari eraginez. Eskenatokiak duen garrantziaz ohartzeko ahal den txukunen aritu dira. Hor ere egon da kartel disenatzailea, musika aukeratzaila eta musika nahastatzailea ere.

Beste lan sakona, entsaioena izan da. Otsailetik ekaina bitartean, astean hirutan aritu gara entseatzeko buru belarri. Batzuetan makal, bestetan ongi eta hurrengoan hobekiago. Bere buruhauste eta guzti, nahiko umore onean igaro dira egunak,



beretz, lan astuna izan arren.

Ahaztu gabe ezin utzi, antzerki sarrerarako parte hartu duten "bideoklip"eko aktoreak. Eguraldia lagun ez izan arren (otsailerako genuen zita), baina pazientzia bai, azkenean, San Isidro egunean grabatu zen Arabako Arrizala herriko trikuharriaren inguruan.

Beraz, egitasmo honen inguruan ibili diren guztiei, eskerrik beroenak luzatzea besterik ez zaigu falta. Kulturaz jantzen den herria, nortasunaz aberasten da.

San Juan

Kaixo irakurle! Egun bereziak dira hauek. Egunik luzeenetan gaude, udaran sartu berriak, ikasleek opor luzeak aurretik dituztela, eguzkitan bero, itzaletan giro... Hau gutxi balitz, udarako herriz herriko festa zerrendari hasiera ematen murgilduta gaude auzoko jaietan.

Hasiera bikaina eman zitzaion, eguraldia lagun, ume eta helduak festetan parte hartuz:

- Buruhandiak: hauek gabeko festarik ez dago zenbait umeentzat.
- Auzotarren herri kirolak: hasiera lasaia baina bukaerarako lehiakortasuna nagusi.
- Mendeku Itsuak: Haur Eskola gainean entseatzen duen taldeak ez nuen uste horrenbeste buru eta ezpain mugitzen zituenik.

- Izotz taldea: logurerik ez eta gaua lagun giroan pasatzeko aitzaki polita.

- Herriko dantzariak: ume eta gurasoak ilusioz egoten dira, lehenengo saioa izaten bait da.

- Gorritiren Showa: ez dakit Gorritiren Showa edo Gorriti bera izaten den showa bina, urtero plaza bete ume.

Egitarau honi jarraipena emateko, San Juan bezperako sua eta eskea izango ditugu. San Juan eguna beraz, meza, hamaiketako, soka dantza... Oilasko Biltze eguna eta bukatzeko Umeen Eguna. Baina oraindik festen erdiak falta dira, bai lan egiteko, parte hartzeko, jolasteko, ikusteko, entzuteko, ligatzeko, dantza egiteko...

Diostesalve...

Kalezar



JOSEBA
PELLEJERO

Jaiak, azterketak, danborrada, oporrak,...

Iritsi dira dagoeneko San Juanak! Gezurra Ibadirudi ere beste urte bat igaro da eta berriz ere festetan murgiltzeko prest aurkitzen gara. Udaran sartu gara pentsatzean denbora zein azkar igarotzen den konturatzen da bat. Herriko festak ere gertu ditugu eta askoren gogo nabarmentzen hasia da. Atxegalden bereziki, danborren soinuak gogor entzuten ditugu, herriko txikienak danborrari jo eta jo ibiltzen baitira. Ea Santixabeletan entsaioetan egindako lanak bere fruitua ematen duen.

Urteko garai hau sentimendu kontrajarriz beterikoa da askorentzat, zeren lehen aipatu bezala festak iristeko gogo dago, baina ikasleak garenak badakigu honekin batera azterketak ere etorriko direla. Ea lehen bait lehen bukatzen ditugun ditxosozko esaminak eta pake-pakean disfrutatzen ditugun geratzen zaizkigun parranda mordoak.



Auzoan ere urtaro aldaketa eta kurtso amaiera iritsi direla antzematen hasiko gara hemendik gutxira, haurren iskanbila gehitzen joango baita uda aurrera doan heinean.

Besterik gabe hemen agurtzen naiz guztion-gandik, ea aurtengo festak ahaztezinak diren eta ondo pasatzen dugun guztion artean, falta direnak gogoan izanik eta muxu bana bidaliz bakoitzari.

Atxegalde



AINARA
ARNAIZ

ZALOA
LEOZ

Santuenea

Okerrak zuzenduz

Kaixo lagunak. Gaurkoan, azkeneko nire kronikan jarritakoaren zuzenketa egin nahiko nituzke. Orduan esan bezala, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak" liburua eskuetan nuela kontatu nizkizuen Santuenea baserriari buruzko zenbait kontu. Gaur ordea, zuzenketa batzuk egin nahi ditut. Auzoko bizilagun batek, baserri bertan bizi izan zen alabak ain zuzen ere luzatu zigun informazioa eta aukera hau aprobe txatu nahiko nuke okerrak zuzentzeko eta eskerak emateko auzokiadeari.

1973. urterarte baserrian bizi izan ziren Santuenea baserriko semeak beraien seme alabekin.. Urte horretan Santuenea baserritik 5 pertsona joan ziren Usurbilgo etxe berrietara bizitera. Baina esan dezakegu, Santuenean auzotik ere 16 bat pertsona joan zirela etxe haietara.

Baserria, 1984an erre zen eta 1973tik 1984 urte arte ikuilua erabiltzen zuten bertako semeak animaliekin. Argazkirik ez zegoela ere esan genuen baina, gaurkoan hemen jartzen dugu



lehen aipatutako auzotarrak bidali bait dizkigu baserriaren argazkiak.

Akaso bada jenderik liburuan beraien baserriari buruz irakurritakoa ez dela zehatza ikusi duen gehiago ere eta horrela bada ez gelditu penetan. Gure lagun honek egin duen moduan zuek ere zuzenketa Noaua!ra bidali eta eskertuko dizuegu. Ea laister batean liburua sarean jartzeko moduan garen eta zuzenketa han jasota geratuko dira datorrenentzat ere.

ALAZNE
BEGIRISTAIN

Urdaiaga

Uda

Udan sartzeaz gauden honetan, asmatu ezin gabiltz eguraldiarekin. Aurreko larunbaten egin zuen beroa, nik uste, ez duela inork atsegin. Baina udari eguraldi ona dagokionez, xirimiri eta eguraldi tristea egitea ere ez zaigu gustatzen.

Udarekin oporrak eta jaiak datorzkigu gogora. Denok nahi izaten dugu ateraldiren bat egin oporretan. Aste bete dela, bi aste direla,... Deskonektatzera! Hemen bertan geldituta ere, pizina eta hondartzara joatea izaten da normalean egiten dena.

Jaiei dagokienez, hasi zizkigu jaiak! San Juanak direla eta, Kalezar auzoan festa izango ditugu astebukaeran. Segida, segidan Usurbilgo Santixabel jaiekin jarraituko dugu. Uztaila amaieran berriz, Zubietako Santioak tokatzen dira. Abuztua hasieran, gure auzoko festa eta normaltasunera itzuliak gaudenean, urrian, Agiñako San Praixkuak. Herri txikia izateko, nahiko festa badugu bai inguruetan!



Eguraldi onari lotuta, gure auzoan mugimendu gehiago somatzen da Jendea parkean egun pasa, haurrak jolasean,... ezkontzak ere bat baino gehiago.

Gure auzo honk, dudari gabe, badu bere xarma eta antzematen da hori.

Eskola Txikien Eguna

Kaixo denoi! Ni honetan berria nauzue, Oxxkarri ideiak amaitu omen zaizkio eta hemen nator ni erreleboa hartuta ideia berrieekin.

Aurrekoan Ainhoak aipatu bezala, ekainaren 12an Elgetan, Eskola Txikien Eguna ospatu zen. Aurtengoan modu ezberdinean antolatu bazen ere, ez zuten aspertzeko betarik izan gure herriko haur eta hain haur ez direnik. Goizean, iritsi orduko, adinaren arabera bi taldeetan banatu zituzten haurrak eta euren jolasei hasiera eman zitzairen. Bi orduz jolasean aritu ondoren, karaokea izan zen eta bertan kantari izan genituen haurrak, batzuk lotsa lotsa eginda abestu bazuten ere, baziren lotsagabe, indartsu abestu zutenak ere. Bazkaldu aurretik, berriz, hainbat irakasleri omenaldia egin zitzairen, tartean Aginagako irakasle izan den Arantxa eta Zubietan hainbat urtez aritu den Milari, hainbat urtez lanean aritu ondoren, hauei ere jubila-

tzeko garaia iritsi baitzaie.

Arratsaldez ere, ez zuten aspertzeko astirik izan hurrek; puzgarriak, tailerrak... egon baitziren. Egunari amaiera emateko, Tapia eta Leturiarekin erromeria izan zen.

Gai honen inguruan zera aipatu nahiko nuke. Orain urte batzuk, autobus bete jende joaten ginen egun hau ospatzera. Gaur egun, ordea, gero eta gutxiago gara egun hau bizitzeko ilusioa dugunak. Hemendik, hurrengo urtean, jendeari animatzeko deia darra luzatzen diot. Aitzaki polita baita, gure eskola txikiei lagunduz egun eder bat pasatzeko.

Eskola Txikiak bizirik, herri txikiak bizirik!

Bestalde, aipatu behar, aurten ere Aginagako gazteek egun pasa polita antolatu dutela ekainaren 25erako. Aurten, Errioxako bodega batera egingo dute bisita. Egun on bat pasa dezazuela guztiok!

Aginaga



**A NE
MANZIDOR**

Hondakinak tratatzeko alternatiba

Hondakinen trataerak hainbat buruhauste Hekarri dizkigu azken bolada luzean.

San Markoseko mankomunitateak eta Diputazioak Hiri-Hondakinak Kudeatzeko Plan Integrala aurkeztu zutenetik, nonahi sortu dira aurkako iritziak.

Larritzeko modukoak baitira, izan ere, plan horretan jasotzen diren errauste plantak.

Planta bat Donostian egingo zutela jakindakoa, Odon Elorzak bere alternatiba partikularra gizarteratu du. Lehenago, kokapena jakin aurretik, ez zuen txintik ere esan, ez zitzaion nonbait hain kaltegarria iruditzen erraustearen kontu hori. Odonek biometanizazio, konpostaje eta gasifikatze plantak proposatu ditu errauste-plantan ordez.

Orain, berriz, erraustearen aurkako Gipuzkoako plataformak aurkeztuko du bere proposamena. Datorren ekainaren 25ean, larunbatean, egingo da aurkezpena Donostiako Miramar jauregian, eguerdiko 11:00etan. Hogeiren bat teknika hartu dute parte propo-

samen horren lanketan, eta Pello Lozanok koordinatu du guztien lana.

Herri mugimenduaren ekarpena den aldetik, oso garrantzitsua da Miramarren herritarrok presente egotea. Askotan leporatu izan digute ezetzkoa besterik ez dugula erabiltzen. Besteren lana kritikatzeko garelako iaioak, baina ez garelako gai alternatibak sortzeko. Horratx ba, hondakinak tratatzeko plan gidatzaile bat plazaratuko du Gipuzkoako plataformak.

Duela hilabete batzuk bukatutzat eman nahi zuen eztabaida zenbaitek. Behin eta berriz esan ziguten errauste-plantak zirela aukera bakarra. Baina garbi ikusten ari gara oraindik badela zer eztabaidatu eta zer erabaki.

Horregatik da garrantzitsua erraustearen aurkako plataformaren deialdiari erantzutea eta larunbat eguerdian Miramar jauregira joatea.

Herritar xeheak ez ezik, Usurbilgo udaleko ordezkariak ere han izango dira seguru asko, informazioa lehen eskutik jasotzeko. Halako ardura edukita, zerbait egin beharko dute!

Zubiet



**XABIER
ARREGI**

Arrakastatsua baino gehiago

Herri antzerkiak bereziak dira. Apartak, bere horretan. Ez dira ohikoak. Zubietako Santio jaietakoa zen salbuespen bakarrenetakoa. Baina hura ere desagertu zen. Gutxitan izaten da horrelako ikuskizunik. Hortik "Sarrailako Giltza" antzezlana sortu zuen ikusmina. 400 eserleku jarri ziren baina beste 400 edo beste 800 ere bete-ko ziren. Arrakastatsua izan zela esatea gutxi esatea da.

Hilabeteetako lana dago ekainaren 11ko emanaldiaren atzean. Lana eta ilusioa. Dena ondo lotuta egon behar zuen. Ez zegoen bigarren aukerarik. Erroka handia zen. Eta aise gailendu zuten. Jendearen erantzuna neurtzea zaila zen. Jendetza bildu zen, uste baino ikusle gehiago hurbildu baitziren pilotalekura. Soinu ekipoa motz geratu zen, bereziki, atzeko ilaretan zeudenentzat. Hala ere, antzerkiko protagonistek batzuen eta besteen txalo zaparrada jaso zuten. Ez zuten gutxiago merezi.



JANTZIAK AUZOLANEAN EGIN ZITUZTEN.



EKAINAREN 11KO ANTZEZLANEAN 45 LAGUNEK HARTU ZUTEN PARTE.



USURBILLEN BIZITAKO PASARTE HISTORIKOETAN DINARRITZEN DA ANTZEZLANA.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza · koloretan
BANDERA SALMENTA
PINTORE KALCA 7 · LASARTE ORIA
943 376 424 · 943 376 152 EMAIL: kalkos@kopisteriakalkos.com

**IGELTSE ITZ
t
INTU**
943 36 20 26
687 95 12 25

ALDAMU
KONPONKETAK
KALE NAGUSIA 10 - STAZIOAN
943 372 795

GLG
garraioak
ZABOR BILKETAK
TELF: 943 37 01 46

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TELF: 943 36 20 26
687 95 12 25

Herri antzerkiko protagonistak

ZUZENDARIA: Ixabel Agirresarobe.

GIDOIA: Ibai Esoain, Iñaki eta Ixabel Agirresarobe.

AITZIN AROA

Jurgi Mendiluze, Arkaitz Lizeaga, Txantxon.

ATXEGA GARAIA

A emakumea: Mariaje Furundarena.

B emakumea: Ana Urdangarin.

Atxega: J.R. Furundarena.

Akolitoa 1: Asier Otegi.

Akolitoa 2: Enrike Huizi.

Mezularia: Ander Izeta, Eneko Eizagirre, Jon Mikel Azpiazu.

Haurrak: Ohiane Juanena, Maddi Zubeldia, Amaia Zubelzu, Nerea Zaldua, Iraia Furundarena, Ander Izeta, Haritz eta Beñat Arruti, Josu Furundarena, Miren Izeta, Aroa Etxaburua, Ander Etxaburua, Garazi Artola, Mikel Artola, Leire Furundarena, Oinintze Kamino, Manex Zubiria, Eneko Eizagirre.

Postularia 1: Aloña Azpiroz.

Postularia 2: Lurdes Hueta.

Postularia 3: Iratxe Begiristain.

Postularia 4: Oskar Santamaria.

Erosleak: Maite Zubeldia, Inma Balda, Marian Bustamante, Joxepo Artola, Aihert Goia.

1371 URTEA

Mezularia: Ander Izeta.

Gizona 1: Lontxo Zubiria.

Gizona 2: Iñaki Agirresarobe.

Gizona 3: Aihert Goia.

Alkatea: Joxepo Artola.

Haurrak: Aurreko guztiak.

Postularia: Aloña Azpiroz.

Biztanlego guztia: Erosleak, Aihert Goia, Joxepo Artola...

Eskribaua: Jabito Zubiria.

BIZIMODU BERRIA

Joxepa: Maitere Alkorta.

Maritxu: M^a Jesus Golarazena.

Kontxesi: Kattalin Arzallus.

Martin: Joxe Torregarai.

Eskribaua: Iñaki Larrañaga.



IRUDIAN IKUSTEN DEN MODUAN, PILOTALEKUA TXIKI GERATU ZEN.

Manifalariak: Agiñarrak: Lontxo Zubiria, Iratxe Begiristain, Eli Bruño, Iñaki Aranburu, Oskar Santamaria, Arantxa.

Agiñako ordezkaria: Iñaki Aranburu.

Alkatea: Iñaki Agirresarobe.

MAPILGO ONTZIOLA

Alkatea: Iñaki Aranburu.

Eskribaua: Alberto Pikabea.

Usurbildarra: Iñaki Larrañaga.

KARLISTAR GUDAK

Santakruz apaiza: Pako Agudo.

Eskribaua: Kepa Unanue.

Soldadu A: Asier Otegi.

Soldadu B: Erramun Erro.

Etxeko andria: Ainara Ullate.

Soldadua: Potro Portularrume, Igor Uribe, Erramun Erro, Iker Mujika, Enrike Huizi, Asier Otegi, Imanol Ikutza "Bulano".

Neskak: Aitziber Elortza, Ainara Uribe, Eva Ugartemendia.

AMAIERA

Ipuin kontalaria: Ana Arruti.

JOSTUNAK

Eusebia Atorrasagasti, Kontxi Arruti,

Begoña Iribar, Antonia Rodriguez, Kattalin Arzallus, Bernarda Agirrezabal, Kontxi Kasti, Arantxa Erreniaga, Mari Karmen Oroz, Pepi Gorriti, Kontxi Arruti.

DEKORATZAILEAK

Maite Agirresarobe, Ana Lopez, Aitziber Elorza (kartelaren diseinua), Joxe Luis Elexpe "Pelex" (egurrezko giltza).

SONORIZAZIOA

Eragin.

AROTZA

Arrona.

BIDEO-GRABAZIOA

Haritz Arrizabalaga.

KOLABORATZAILEAK

Maitere Arzallus (atreztoa), Egoitz Lasa (musika aukeratzea), Joxeba Agirresarobe (musika efektuak), Usurbilgo Eliza (aldagela, jangela), Miren Maioz, Hika Antzerki Taldea (atreztoa), Mariaje Elexpe eta Loli Lizarralde (makilajea).

Hasi dira San Joanak

Ez da kalitate handiko argazkia. Baina hala ere, esanguratsua da oso. 1970. urtean, Kalezarren Soka Dantza egin zeneko irudia duzue. Belmont zuen izena taldeak. Orain, 35 urteren ondoren, herritarren omenaldia jasoko dute. Ekitaldia San Joan egunean bertan izango da, meza bukatu eta berehala.

Jai egitarauan ez duzue ekitaldi hau topatuko. Azken orduan otu zitzaie. Hala ere, aurtengo ekitaldi hunkigarrienetakoa izango da.

Irudia abiapuntu, ekimen honen sustatzaileak dantzari denekin harremanetan jarri dira. Ekainaren 24an Kalezarren egingo den ekitaldian, bi edo hiru ez ezik, Belmont taldeko gai-nontzeko kideak bilduko dira.

Ekitaldiaren ondoren, Antxeta tabernan elkartuko dira afari eder baten inguruan.

1970. urteko dantzariak

Irudia argia ez bada ere, hauek dituzue 1970. urteko Soka Dantzan parte hartu zutenak:

Goian, ezkerretik hasita: Jesus Mari Pagola, Irene Irureta, Angel Matxain, Loli Maiz, Mikel Arriaga eta Iñaki Urkia.



IRUDIAN, 1970. URTEAN SAN JOANETAKO SOKA DANTZAN ARITU ZIREN LAGUNAK.

Eserita, ezkerretik hasita: Pako Alkorta, Miguel Mari Izagirre, Enkarni Alkorta, Pedro Mari Matxain eta Elena Irureta.

Lehen lerroan eta eserita: Izaskun Zubiria, Jose Manuel Mitxelena eta Maria Jesus Elorza.

San Joan egunean

Ekainaren 24an, ostirala, Meza nagusiaren ondoren egingo da ekitaldia. 11:00etan hasiko da meza. Atera kontuak...

Bigarren asteburuak ekarriko duena

EKAINAK 23 OSTEGUNA (SAN JOAN BEZPERA)

- 15:00 San Joan eskearen irteera.
- 22:00 San Joan sua, ondoren eskearen jarraipena.

EKAINAK 24 OSTIRALA (SAN JOAN EGUNA)

- 11:00 Meza nagusia. Ondoren, omenaldia.
- 12:30 Toka txapelketa.
- 18:00 Buruhandiak txistulariek alaiturik.
- 19:00 Auzotarrek eskainitako Soka Dantza, ondoren sardina eta sagardo dastaketa.
- 23:30 "Trikidantz" taldearekin dantzaldia.

EKAINAK 25 LARUNBATA (OILASKO BILTZAILEEN EGUNA)

- Goizean goiz, Oilasko Biltzaileen irteera.

- 14:00 Oilasko Biltzaileen bazkaria.
- 16:00 Mus txapelketa (16:30 izen ematea itxiko da).
- 18:00 Buruhandiak.
- 19:00 Auzotarren arteko patata tortila lehiaketa.
- 22:00 ("Zumarteren emanaldia kiroldegian").
- 24:00 "Etxabe Anaiak"ekin erromeria.

EKAINAK 26 IGANDEA (UMEEN EGUNA)

- 10:00 Krosa.
- 12:00/14:00 Umeentzako jolasak.
- 16:30 Tailerrak eta jokoan jarraipena, ondoren txokolatada.
- 20:00 Buruhandiak jaiei amaiera emanez.

Oharra: Eguraldi ona eginez gero, mangera aterako da.

Enpresetan ere, euskaraz

Ikasturtearen hasieran, Buruntzaldeko Udalek eskualdeko enpresetan euskara planak martxan jartzeko egitasmoa onartu zuten. Berehala, lau enpresa izan ziren planarekin bat egitea erabakia hartu zutenak: Latz kooperatiba (Andoain), Perfiles Especiales Selak, S.L. (Hernani) eta Usurbilgo Victorio Luzuriaga eta S. Izaguirre SA enpresak. Lau enpresa hauek norik bere udalarekin hitzarmena sinatu zuten, ekainaren 17an Hernanin egin zen ekitaldian.

Oraingoz, lau baino ez dira. Baina laster gehiago izango dira euskararen erabilera plan honekin bat egingo dutenak. Beste 16 enpresak urte honen amaiera aldera helduko diote planari; eta beste 22k, aurreraxeago ekiteko asmoa azaldu dute.

“Luzuriaga SA eta Izaguirre SA enpresek euskararen erabilera planarekin bat egin dute. Aurretik, beste enpresa batek ere bazuen plan hori martxan, Fagor-Berriolak”

Buruntzaldeko Udalak pozik azaldu dira lehenengo urteko sustapen-lan honek eman duenarekin eta uda ondoren berriro ekingo diote egitasmo honi.

Hernanin sinatutako hitzarmenari dagokionez, hauxe da bertan jasotzen



HERNANIKO EKITALDIAN, BESTEAK BESTE, LUISMARI ORMAETXEA ALKATEA ETA LUZURIAGA ETA IZAGUIRRE ENPRESETAKO KIDEAK IZAN ZIREN.

dena: Udalak diruz lagunduko dio bere herriko enpresari planak bideratzeko. Diru laguntza bai planaren diseinurako eta baita inplementazioaren lehenengo urterako izango da. Diru laguntzaren gehienezko kopurua 3.500 eurokoa izango da eta behin bakarrik lagunduko du Udalak enpresa bakoitza.

Enpresak, bere aldetik, euskara planak martxan jartzeko beste erakunde publiko batzuek ematen dituzten diru-laguntzak jorratzeko konpromisoa hartuko du.

Sindikatuaren partehartzea

Buruntzaldeko Udalen egitasmoari jarraipena egiteko, eskualde mailako batzorde bat sortu zen lau sindikatutako (ELA, LAB, Langileen Batzordeak eta UGT) ordezkariekin eta Lanbide Heziketako ikastetxeen ordezkariekin.

Lanbide Hastapeneko tailerrak, martxan

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila eta eskualdeko hainbat herrien artean (Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil) adosturiko lankidetzak hitzarmenari esker, Lanbide Hastapeneko tailerren eskaintza zabala da:

Usurbilen

- Sukaldaritza / gozogintza.
- Ile-apainketa / edergintza.

Lasarte-Orian

- Igeltseritza / teknika berriak.
- Zurgintza eta egurra.

Andoainean

- Automobilaren karrozeria.
- Galdaragintza / Soldadura.

Ikastaroek bi urteko iraupena dute.

Nori zuzendua

16-21 urte bitarteko gazteak, Usurbilgo herritarak, ikasten ari ez direnak edota langabezia daudenak.

Izena emateko epea

Ekaina, uztaila eta irailaren 15a arte, Udaletxean (943 37 19 51).

Udal aurrekontuak behin betikoz onartutzat jaso ditu Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak

Zer esanik eman du 2005eko udal aurrekontuak. Kontuak kontu, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak behin betikoz onartutzat eman ditu udal aurrekontuak. Ekainaren 16ko boletinean hala jaso zen.

Honela dio boletinean jasotako idatziak: "2005 urteko Aurrekontu Orokorra jendaurrean jartzeko arazuko epea amaitu delarik eta jasotako erreklamazio bakarria erantzun eta baztertu denez, aipatu Aurrekontua behin betirako onartu da, ekainaren 10eko Udaltza osoko bilkuran". Era berean, indarrean dagoen araudian xedatutakoa beteaz, jakinarazten da erabaki honek amaiera ematen diola administrazio bideari. Erabaki honen aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertze errekur-

tsoa aurkez dezake udalbatza plenoaren aurrean. Eskatzaileak hilabeteko epea dauka horretarako erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrerako hilabete osoa. Bestela, erabaki hau berraztertze eskatu ordez, edo berraztertze errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, zuzen zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake. Interesatuak bi hilabeteko epea dauka horretarako, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsoa aurkeztekotan Euskal Herriko Epaimahai Goreneko Administrazioarekiko Auzialdiko Salara jo behar da. Bestaldekik, birjarpen errekurtsoa erantzun gabe utziko balu Administrazioak, interesdunak sei hilabeteko epea izango du, errekurtsoa tartekatuz data-tik kontatzen hasita, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.

11 urte eta gero

Bai, 11 urte. 11 urte igaro dira herritar askok eta askok Patxi Segurola azkenengoz agurtu zutenetik. 11 urte herriatik urrun, senide eta lagunetatik aparte. Azken sei urteak preso eman ditu. Behin behineko presondegian. Epaietarik gabe. Parisen. 900 kilometro-ra. Fresnes. La Santé. Villepinte. Ziega ilunetan gatibu. Ukazioen peskizan. Senide eta lagun ugariren bisitarik gabe. 40 minutu. Bisita bat. Ez. Hala igaro dira 11 urte. Nahi eta ezinaren arteko borrokan preso. Iritsi da eguna. Azkenean. Patxi ikusteko eguna. 11 urte eta gero. Ez besarkadarik, ez hitzik. Patxi agurtzeko aukera baino ez. Dena den, konforme. Ze erremedio! Begirada eta keinuen morrontzan pasa dugu eguna. Eta gu pozik. Oso pozik.

09:00etan iritsi gara Parisko Justizia Epaitegi aurrera. Astelehena da. Ia 12 ordu egin ditugu autobusean. Nekatuta gaude, baina ordubete beranduago Patxi ikusiko dugula pentsatzean, ahaztu zaizkigu neke eta logureak. Ordubete. Ordubete baino ez da falta. Eta hantxe abiatu gara epaitegi barrura. 40 lagun. Usurbildarrak, andoaindarrak, baionarrak... Guztiak senide eta lagunak ikusteko irrikitan: Patxi Segurola, Jon Bienzobas, Argi Perurena, Asier Oiartzabal eta Fermin Benito Martinez.

10:00etan hasten da goizeko saioa. Aretora sartu aurretik, banan bana pasa gaituzte metal detektagailutik. Pi, pi, pi... guztiak egiten du pi.

Aretoa nahiko handia da. Iluna, eta, itxusia. Zaharra. Ez dago kristalik, ez kaiolarik. Ez du Espainiako Auzitegi Nazionaleko aretoen antzik. Sartu garenean, oraindik hutsik dago aretoa. Polizia batzuk baino ez daude. Eta bretoiak. Euskaldunekin batera epaitzen ari diren bretoiak. Guztira 10 dira, baina han zazpi daude, beste hirurak espetxean daudelako.

10:15etarako, guztiak aretoan gaude. Eserita. Urduri gaude, presoak sartu behar dituzten atera begira. Atea itxita dago. Halako batean, txirrina jo du. Epailak datozela esan nahi du. Eta polizia atxatze-ko agindu digu.

Sei epaile eta fiskala sartu dira aretora. Baina, atea itxita jarraitzen du. Halako batean, ireki da. Eta polizia bat sartu da. Beste inor ez. Epailak, Yves Jacobek, buruarekin keinu bat egin dio. Han datoz, bada-toz. Jon da! Eta, atzetik, Patxi, Argi, Asier eta Fermin. Bihotzak bor-borka hasi dira. 11



PARISKO JUSTIZIA EPAITEGI AURREAN ATERAKO ARGAZKIA (ARGAZKIA: ZALOA ARNAIZ).

urte eta gero, han dator Patxi. Besoak altxatuz sartu dira epaigelara, gu agurtzeko. Ukabilak gora. CRS-eko hamaika polizia dituzte atzetik.

Epaila hizketan hasi da eta lekuko bat deitu du. Akusazioarena, omen. Guri bost axola! Elkar agurtzen hasi gara eta ondo dauden eta ondo gauden keinuak egin dizkiogu elkarri. Haiek buruarekin baietz. Primeran daudela eta lasai egoteko. Une oro ixilik. Builaka hasteko gogoz, baina, burua hotz. Irriparra ezpainetan. Horrek egiten du kontrastea gela ilunean.

Banan bana begiratu gaitu Patxik, eta, guztioi agurtu. Batzuk ezagutu ezinik. Ez da harriztekoa! 11 urte igaro dira.

Goiz osoa elkarri begira pasa dugu. Begiradek dute indarra. 12:45ean epailak goizeko saioa amaitzeko agindu du. Eta gelatik atera dituzte. Gero arte.

Justizia epaitegiaren aldameneko parke batean bazkaldu dugu. Patxitaz aritu gara hizketan. Zenbat argaldu den, ze itxura ona duen, orain gutxi izandako ebakuntzaz, berriro giltzurrunetan atera zaion harriaz. Encarnik, emazteak, txisteak egiten ditu harrien kontura: «Usurbildik zerbait eraman behar, eta Ingemarreko harriak eraman ditu». Ez dugu denbora asko pasa bazkal-tzen, 14:00etan hasten baita arratsaldeko saioa. Eta poliki-poliki epaitegi aldera joan gara. Orain lasaiago gaude: urduri, baina lasaiago. 14:00ak pasatxo hasi da saioa. Txirrina jo du. Zutik. Eskubiko atea zabaldu da eta han datoz berriz. Arratsaldeko saioa berezia da, gainera. Defentsaren leku-koek deklaratu behar dute. Didier Rouget sartu da aurrea, Parisko Unibertsitateko

Zuzenbidean doktorea eta tortura gaietan aditua. Torturak salatu ditu epailearen aurrean. Eta Frantziako Gobernuaren jarrera. Torturatzailak izen-abizenak dituztela esan dio. Eta epailak batzuen izenak esateko galdegin dio. Eta Didierrek ezetz, bestela bera auziperatuko zuelako.

Ondoren, Jean François Lefort deitu du epailak. Garzonen aginduz egun Frantziako preso dagoen Askatasunako bozeramailea. Zutitu egin gara eta agurtu egin dugu. Txaloka ere hasi da norbait. Badaezpada ere, ixildu egin gara. Espainia eta Frantziako Gobernuen errepresioa salatu du, dispersioa, espetxetako baldintzak... Eta Oihane Errazkin gogoratu du. Frantziako Fleury espetxean bere buruaz beste egin zuen gaztea. Gure artean ziren bere gurasoak. Lefort eramaten ari zirela, Oihaneren ama altxatu da eta bi muxu eman dizkio. Poliziak separatzen saiatu dira. Eta ezin. Maitasunaren indarra. Txaloka hasi gara. Eta aretotik bidaltzarekin egin digu mehatxu epailak. Xabi Larralde, Batasuneko kidea, sartu da gero.

Saioa amaitzen ari da. Amaitzen ari da Patxi ikusteko izan dugun aukera. Epaila bukatzen ari dela, altxatu eta Eusko Gudariak abesten hasi gara. Jon, Patxi, Argi, Asier eta Fermin ere altxatu dira eta abesten hasi dira. Epaila builaka hasi da; baina, guri bost! Poliziek besotik hartu dituzte, eta kanpora daramatzate. Oihuka, aupaka... hasi gara. Agurtzen. Eta Patxik besarkada handi bat bidali digu.

Badoaz. Gu ere. Patxi laster ikusiko dugulakoan.

Ikastola utziko du Xabin Aizarna zuzendariak

Amaitu da ikasturtea. Oporrei ekiteko garaia da. Iraila arte, jai. Datorren ikasturtean, ordea, beste zuzendari bat izango du Udaregi Ikastolak. Gure artean hiru urte egin eta gero, Donostiako Zurriola Ikastolara itzuliko da Xabin Aizarna. Joan baino lehen, etorri zenetik hona egindakoa laburbiltzeko eskatu diogu Xabini. Bide batez, eskerrak emateko aukera aprobetxatu nahi izan du.

NOAUA! Irailean ez zara Udaregin izango. Orain arte egindakoa laburbilduko al diguzu?

Xabin Aizarna. Hiru urte hauetan egindako lana honela laburbildu daiteke.

Antolaketa eta egituratze mailan:

-0-3 ziklorako baimen administratiboa lortu eta, gero, bi urteko umeengatik 2003-04 ikasturtean hasita, Hezkuntza Siletik diru-laguntzak jasotzen hasi gara.

-Epe motzera, ikastolak behar izango dituen espazioen azterketa egin, eta Udal-Batzarekin plangintza bat adostu da.

-Udaregi Patronatua Kooperatiban eraldatu da, diru-iturri berriak lortzea ahalbidetuz.

-Zerbitzuen eremuan, jangela-zerbitzu hobetu da, guraso eta irakasleek eskatzen dutenera hurbilduz.

-Ikastolako Barne Araudia Kooperatibaren Estatutuekin uztartzeko zirriborroa prestatu da.

Hezkuntza mailan:


-Lan-taldeen bidez lana egiteko sistema abian jarri dira: Etorkinen integrazioa, bizikidetzeta, LH 6. eta DBH 1. mailen arteko koordinazioa, Txanela Proiektua, IKT (informatika alderdia), 0-3 zikloa...

-Lehendik baldin bazeuden ere, etorkinak integratzeko Plangintzaren Marko Teorikoa egin da (Mariaje Imazek egin du).

-Ikastolaren Proiektu Curricularra osatzeko azken urratsak eman dira (Gorputz Hezkuntza eta Musika arloetan).

-Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza etapen arteko koordinazioa hobetu da.

-Orientazioa Departamendua sendotu egin da.



EKAINAREN 19AN IKASTOLAKO LAGUNEN AGURRA JASO ZUEN SAIZAR SAGARDETEGIAN.

-Ikastolaren Informazio eta Komunikazio Teknologien ezarpenarekin jarraitu da.

Partehartze eta komunikazio mailan:

-Guraso, ikasle eta langileen asebetetze-maila neurtzeko galdeketa diseinatu, pasa, zuzendu eta ebaluatu da.

Ekonomia eta administrazioa:

-Bazkide eta langileei ikastolaren egoera ekonomikoaz informazio zabal, osatu eta zehatza idatziz eman da.

Bestalde, lortu ezin izan denaren artean, bi puntu:

-Kudeaketa Pedagogiko eraginkorragoa egiteko egitura sendoa abian ez jartzea.

-Guraso eta langileen partaidetza ikastolan gehiagotzea.

N. NOAUA! Txiki orrialdearen bidez, ikasleen jarduera, ikastolaren martxa gizarteratzea garrantzitsua izan zitekeela ikusi genuen. Helburu nagusi hori bete dela uste al duzu?

X. A. Bai. NOAUA! Txiki ekimena oso interesgarria da. Era honetara ikasleek (txiki eta handi) bide dute beraiek egindakoaren berri herriari emateko. Gerora begira eta epe motzera gainera,

ez bakarrik ikasleen jarduera, baizik eta baita ikastolaren nahi eta egitasmoak azaltzeko ere baliabide oso baliagarria izango da (herriaren hazkunde demografikoak sortuko ditu berri horiek).

N. Zer esango zenieke agur gisa, guraso, ikasle eta irakasleei?

X. A. Lehenik eta behin, eskerrak eman guztioi eskainitako aukera eta laguntzarengatik. Hiru urtez gustura ari izan naiz lanean eta zenbait helburu lortu da. Aipatu hiru partaideren eginkizuna eta ardura ezberdina izan arren, denoi, "ikastolazale" bezala, ikastolarekin bat egin dezaten eskatuko nieke eta, epe motzera izango duten erronka dela eta, orain arte bezala, tinko jarraitzea lanean.

Baina bestalde, beste honetarako ere aukera paregabe hau profitatu nahi dut. Hiru urte hauetan elkarlanean aritutako guztiei, aurreko eta oraingo udal-batzak, zinegotzi eta udal-langile guztiak, Aizpurua autobusak, Auzo Lagun eta gainerako hornitzaileak, Udal Haur Eskolako kideak, NOAUAkoak, EPA eta Lanbide Hastapenekoak, Zumarte eta herriko beste elkarteetako kideak, DYA, dendari, tabernari... bene-bentetan, eskerrik asko.

Pilota Astea, txukuna eta oparoa

Pilota Asteak eman duenarekin pozik azaldu dira antolatzaileak. Larunbata goizeko bote luzeko partida ez zen jokatu (Lapurdiakoak ez ziren bertaratu), baina gainontzeko ekitaldietan ikusle ugari bildu zen. Bereziki, eskuz binakako pilota partida profesionalean. Martin Alustiza fin aritu bazen ere, etxean galtzea tokatu zitzaion. Ariznabarreta-Altuna bikotea izan zen garaile. Baina Pilota Asteak bestelako une gozo asko utzi zituen.

Pilotak baditu milaka aurpegi. Jokamolde ezberdinak ezagutarazi asmoz antolatu zen, hain zuzen, Lehen Pilota Astea. Aurtengoa hirugarren edizioa izan da. Hasierako planteamenduari jarraituz, joko eta molde ezberdinak ikusteko aukera izan da. Honakoan aipatzekoa da emakumezkoen partehartzea inoizko handiena izan dela.

Profesionalekin jolasean

Ekainaren 16an hasi zen Pilota Astea. Pilotari profesionalekin jokatzen aritu ziren herriko pilotari gazteak. Gutxitan izaten da horrelako aukerarik eta ondo aprobetxatu zuten.

Biharamunean, ostiral gauean, hiru partida jokatu ziren Usurbilgo pilotalekuan. Partida denak ikusgarriak izan ziren, bildu ziren ikusleen gozamenarako. Paleta goman, Nafarroako Susana eta Maite bikotea izan zen garaile.



GAZTETXOEK MARTIN ALUSTIZA PILOTARI PROFESIONALAREKIN ENTRENATZEKO AUKERA IZAN ZUTEN.

Eskuz binakako pilota profesionalen partidari, aldiz, Ariznabarreta-Altuna bikotea Alustizak eta Elolak osatutakoa baino gehiago izan zen.

Zubietan, jende gutxi

Larunbata goizean ez zen bote luzeko partidarik jokatu. Lapurdiko pilotariak huts egin zuten. Arratsaldean, erremonterko profesionalen partidari jende gutxi ibili zen. Bero itogarriak, egia esan, ez zuten gehiegi lagundu.

Loidi-Elexpe nagusi

Ibai Esoainen partez, Iker Artola izan

zen Kerman Errekondoren bikotea. Jokin Sorozabal bertsolaria aritu zen "botillero" lanetan. Hala ere, Unai Loidi eta Mikel Elexpe izan ziren nagusi. Azken hauek, Jexux Mari Irazu bertsolariaren laguntza izan zuten. Unai Agirrek bete zituen epaile lanak.

Andatzpe-Peña Pagola, Zubietako Pelota Elkarte eta Bota Punttuba Bertso Eskola izan dira antolatzaileak. Usurbilgo Udala eta GEPE eskertu nahi dute, eskainitako babesarengatik. Hala nola, honako hauen laguntza azpimarratu: Euskadiko Kutxa, Ikaspilota eta NOAUA! Kultur Elkarte.

Xiba Txapelketan, Asteasu nagusi

Kanporaketetan ondoen aritu ziren taldeak nabarmendu ziren Oiartzunen jokatu zen finalean. Asteasu izan zen nagusi.

Beroa itogarria zen, baina garaileak bezain gogotsu lehiatu ziren Usurbilgo ordezkariak.

Kirolari, ikusle eta antolatzaile artean, 1.300 lagun bildu ziren Oiartzunen. Asteasuren ondoren, Idiazabal eta Zizurkil nabarmendu ziren. Segidan, Irañeta, Areatza, Igeldo, Hernani eta Egia sailkatu ziren.

26 taldetik, 13garren amaitu zuen Usurbilgo taldeak.



ASTEASU, IDIAZABAL ETA ZIZURKIL NAGUSITU ZIREN FINALEAN. USURBILGO TALDEA 13GARRENA IZAN ZEN.

Usurbildar gazteak, Granollersen egingo den Nazioarteko Eskubaloi Txapelketan

Ikasturteari amaiera polita emango diote eskubaloi taldeko gazteek. Ekainaren 24tik 28ra, Granollersen (Katalunian) egingo den nazioarteko txapelketa batean izango dira argazkietan azaltzen diren gazteak. Gainera, fisioterapeuta eta guzti abiatuko dira. Guztira, 30 lagunetik gora izango dira Granollersen.

Urte osoan dirua jartzen aritu dira. Horretaz gain, errifa arrakastatsu bat egin dute. Ahalegin horri esker, eskubaloi jokalariek gazte hauek nazioarteko txapelketa batean parte hartzeko aukera izango dute.

Lau egunez Katalunian

Kadete mailako mutilak eta infantil mailako neskak gutxitan izango dute horrelako aukerarik. Lau egunez, nazioarteko beste talde batzuekin neurtuko dituzte indarrak.



KADETE MAILAKO MUTILAK.



INFANTIL MAILAKO NESKAK.

Guraso asko animatu dira

Ligaxka moduko batean jokatuko dute lehenbizi. Eta talde onenak, finalurretara pasako dira. Kasu honetan, ordea, partehartzea da sari nagusia.

Jokalariekin batera, guraso asko animatu dira. Hori bai, toki ezberdinetan aterpetuko dira. Jokalariak, entrenatzaileak, delegatuak eta fisioterapeuta autobusez abiatuko dira.

Ez da horrelako irteera egiten den lehen aldia. Iaz, Alacanten izan ziren.

Eskubaloiko zozketan saritutako zenbakia

Pasa den maiatzaren 27an, ONCERen zenbakiarekin batera, Irulegi Millar-eko lotea zozketatu zen. Zenbaki sariduna 1518 izan da eta oraindik ez da jaberik azaldu. Ekainaren 27an amaitzen da epea. Zenbaki hau duenak kiroldegian utz ditzala bere datuak edo bestela e-posta honetara idatzi dezala:

axiersalsamendi@usurbil.com

Euskal Herriko Aizkolari Lehiaketaren finalaurrekoa

Santixabel egunean, Euskal Herriko Aizkolari Txapelketaren finalaurrea jokatuko da Usurbilen. 17:00etan hasiko da finalaurrea, Dema Plazan. Finala, ordea, Iruñeako San Ferminetan jokatuko da.

Usurbilgo finalaurrean, lan hau osatu beharko dute aizkolariak: 50, 60 eta 72ko hiru enbor.

Hauek izango dira aurrez aurre lehiatuko diren aizkolariak: Javier Aranbarri "Elorriaga", Luis Mari Belarra, Jose Manuel Erasun, Ernesto Ezpeleta, Jose Ignacio Flores, Manuel Cañameres, Juan Jose Lopez Azpilikueta, Julen Mendieta, Unai Otaño, Jose Angel Zubiaga, Daniel Vicente. Lehia amaitzerakoan, dopatzearen aurkako kontrola egingo da.



ERASUNEK UZTAILEAN APUSTUA JOKATUKO DU OLASAGASTIREN AURKA.

Erasun, faboritoen artean

Iaz itzuli egin zen Juan Manuel Erasun txapelketetara, eta Euskadiko III. Mailako saria irabazi zuen. Ekainaren 12an, Gipuzkoako II. Mailako Txapelketa eskuratu zuen Ibarren.



Aizkolarien ondoren, Esnaolarren erakustaldia

Aizkolarien saioa eta gero, ididemak egingo dira Santixabel egunean. Aurrez aurre, Santueneko Esnaolaren idi-parea eta Ibaetako Argoteren idi-parea.

Aizkolarien saioa arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta hura amaitzean hasiko da idi-proba.

Agur Udarregi

2004-2005 ikasturtea bukatuta, DBH 4ko ikasleoi Udarregiri agur esateko ordua iritsi zaigu.

Batzuk 14 urte pasa ditugu ikastolan, besteak 10 urte, gutxi batzuk 6 urte... pentsatzen jarrita ordu mor doa da gero baina azken finean denok ditugu sentimendu ezberdinak hemendik ateratzeko unean. Batzuk erreta bukatzen dute. Besteak, berriz, penaz (bai klase giroagatik, bizitako momentu ezberdinengatik...). Batez ere, mundu berri bat sortu dugulako denon artean eta orain agur esango diogulako. Urte asko dira elkarrekin eman ditugunak, haserrealdi asko baina baita momentu politak ere.

Jende berria ezagutu

Orain, Udarregitik joatean, nahiz eta batzuk elkarrekin jarraitu, gerora begira bakoitzak bere bidea aukeratu ko du.

Aurten, gehiengoa Zarautzko



AURTEN, GEHIENGOA, ZARAUTZKO OTEIZA INSTITUTORA JOANGO DA BATXILERGOA EGITERA.

Oteiza Institutura joango da batxilergoa egitera, baina badira Lasarte-Oriara, Donostiara eta Erdi Mailako zikloetara doazenak ere; Andoainera, Zubietara, Tolosara...

Jende berria ezagutzeko asmoarekin eta ilusioarekin etapa luuuuuzee honi amaiera eman eta berri bati hasiera emateko gogoz gaude.

Agur!

Elgeta, jendez beteta

Eguraldia, giroa bezain beroa izan genuen Eskola Txikien Festan. Zubietatik 45 lagunek bete genuen bertara eraman gintuen autobusa. Goizean 10:00etarako deituak geunden eta berehala antolatu gintuzten txikien eta haundiagoen guneetara zuzenduz. Aginagako hurrekin batera, bi talde izan ginen jokuetan.

Benetan, parte hartzailea izatea lor tzea izan da aurten antolatzaileen helburua. Eta lortu dute. Txalogarria! Umeak goiz osoan jokuetan parte hartzen pasa zuten, gustura. Eta eguerdirako jubilatzeaz dauden hiru ande-

renok, tartean gurea; Milak jaso zuen lore sorta, oroigarria eta gure txalo beroa. Ondoren gurasoek prestatutako dantza saioa ikusi eta bazkalondorako izan genituen pailazo eta puzgariak. Tapia ta Leturia taldearekin dantza pixka bat egin eta han utzi genituen jaiak giro ona jario zuela sumatu arren.

Datorren urteko jaiak Igeldon izango da. Eta bi urtera Zubietan. Ordurako asmatuko dugu antolaketa txukuna egiten, hori bai, listoia altu xamar utzi digute aurten. Baina Zubietan, behinik behin, ez du horrek inor kikildu!

Zubietako Gusaro Elkartea



Oharrak !

ETXEBIZITZA

- Usurbil edo inguruetan pisua errentan hartuko genuke. Tf: 645722874.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahiko luke Usurbilen. 679 185 102.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Salgai Enduroko motorra Suzuki DR 400-Z Oso egoera onean. 607 457 004 (Dani).
- Vespa Iris 200 motorra salgai. SS-AL matrikula. Salneurria 600 euro. Telefonoa: 656 721 158.
- Garaje bat daukat alokairuan jartzeko Kale Nagusian (Bizkarreko etxeetan) 240 eurotan. 100m2takoa da eta kotxea erraz sartzen da. 943 458 284.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3 zenbakian. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera oso onean. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK**Lan-eskaerak**

- Udan umeak zaintzeko prest nago. 943 37 12 77 / 685 722 602 (Nerea).
- Udan haurrak zaintzeko esperientziadun neska euskaldun bat eskeintzen da. Egun osoko disponibilitatea. Interesatuak. 658 759 335.
- Lan egiteko gogoia daukat. Kanpotarra naiz eta edozein lan egingo nuke: portalak garbitu, plantxa egin, kanguro lanak asteburkaeratan, pertsona helduekin, fregadera-ko lanak... 677 552 258 (Sharon).
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera lan egiteko. Telefonoa: 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenerik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduak zaintzeko. Horrelako lanetan aritua. 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zerbaitean. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska

bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. Interesatuak deitu (690 784 113).

- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943 555 835/ 617-242660.

Lan-eskaintzak

- Harategian lan egiteko pertsona behar dugu, uztailean eta abuztuan. 943 37 20 34.
- Emakume heldu bat behar dugu etxekolanak egiteko. Eguerdiko lana izango litzateke. Euskalduna izatea nahiko genuke. Interesatuak mesedez deitu telefono honetara: 943 300 518 (Ma Angeles).
- Orioko ilepaimdegi batean estetizista bat behar da. Interesatuak deitu 943832729.
- Zarautzko taberna baterako sukaldaria eta zerbitzaria behar dugu. Udarako bakarik. Interesatuak: 661 97 26 70.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Trailerra saltzen da lanarekin. Interesatuak deitu 649 85 01 31.
- Kalezar azpiko erreka ondoko bide berrian betaurreko batzuk topatu ditut. Galdu badituzu, NOAUA!tik pasa.
- Itsasoan arrantzan egiteko kainabera behar dut. Ahal bada teleskopikoa. Zurea erabiltzen ez baduzu, doan edo merke antzean emateko prest bazaude, gustura hartuko nuke. Tel: 676374812.
- Haur baten jertse berde bat galdu dugu Zubiarrenea kaletik, San Ignazioko autobus geltoki bitartean. Aurkitu duenak mesedez NOAUA!ko egoitzan utz dezala. Mila esker.
- Peugeot 306 Break salgai. 2000-HDI. Matrikula, BPF (2001 azaroa). Garajejan egon da beti. Prezioa: 10.500 euro. Telefonoa: 636 36 49 42.
- Baldintza onetan dagoen 49cc dituen moto Honda bat daukat salgai.

Telefonoa: 943 36 45 54.

- Ume baten urrezko pultsera bat galdu dugu. Ianire izena eta data bat dauzka grabaturik. Aurkitu duenak deitu: Telefonoa: 667 502 218.
- Ekonomia sukalde bat saltzen da (labea ere badu). 6 urte, ondo zaindua. Prezioa negoziatuko da. 617 242 660 / 943 361 751 (Nerea).
- Bideokamara bat saltzen dut, Canon XL1 semiprofesionala, bateria eta tripodeta barne. Gutxi erabilia. 943 376 902 - 665 749 615 gauzez.
- Kanping-karroa salgai, aluminiozko panelarekin. Karabana bihurtzen da. Telefonoa: 943 55 18 32.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Txerrimunik ordainetan !**Zorionak Mikel!**

Uztailaren 5ean urteak egingo dituzu eta ez pentsa ahaztuta gaudenik. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partez! Ondo pasa.

JAIOTZAK

- Izaro Arruti Tapia, ekainaren 2an.
- Asier Unsain Calvo, ekainaren 9an.

Informazio iturria: Usurbilgo Bake Epaitegia

**Oharrak - Txerrimunik ordainetan
doaneko atalak dira**

NOAUA! Kultur Elkarte - Borda Berri,
3 Eguzkitzaldea 20170 Usurbil
erredakzioa@noaua.com

SARIA:

Noaua!^{ko}
kamiseta zoragarria

eta

Lauburua

Zuhurtzia, zortea, sena eta abilezia
uztartzten dituen mahai jolasa



Galdera hau asmatzen duten pertsonen artean sari zoragarri hau zozketatuko dugu.

Ekainaren 11ean herriko pilotalekuan antzestu zen herri antzerkiak zer izen zuen?

- 1) GILTZA
- 2) GILTZA SARRAILAN
- 3) SARRAILAKO GILTZA

Erantzunak bidaltzeko azken eguna
EKAINAK 31

207. lehlaketako erantzuna:
Nork irabazi zuen 2005eko Usurbilgo Sagardo Eguneko sagardo botatze lehiaketa?
ARANTXA UNANUE

Irabazlea **MANU ETXEBERRIA** izan da. Jaso ezazu saria Noaualko egoitzan. **ZORIONAK!**



EUSKAL OKELA
KARRE DESENJOA ETXEBERRIAK
DEL PAS VASCO

LK T
UT ZE ITZU

ETXEK

h k k l , 4
T H 433 6742

F OT K
ZKI K
OKTU K
K NOEL TU K

H n k n U z n n , s l z

USU ILG H TZ KLINIK

FE N N E EZ-M SS NENNINGE
NT NI E N L UIZ E

K I N us , 2 I C 2 17
Tlf 337 7 USU IL

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! hamaboskaria, Euskal Txokoak, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Fototeka, Plis, Plas, Txalo ta Jolas, "Usurbilgo Baserriak eta Baserritarrak"... Gure bazkideak harro egoteko moduan dira. Baina gehiago eta hobeto lan egin daiteke.

Zure babesa funtsezkoa da kultur elkarte honen sustenguan.

Bazkide egin zaitez! **Noaua!!**

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefona: _____
 E-posta: _____
 Kontu Korrontea: □□□□□□□□ □□ □□□□□□□□□□

Orrialdea bete eta NOAUA!tra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Agenda !

Ekainak 25, larunbata

- Santixabel Bertsopaper Lehiaketan parte hartzeko azken eguna. Bertsoak hona bidali: Usurbilgo Udala (XXIX. Bertsopaper Lehiaketa). Joxe Martin Enparantza. Usurbil 20170.

San Joanak 2005

EKAINAK 23 OSTEKUNA

15:00 San Joan eskearen irteera.

22:00 San Joan sua, ondoren eskearen jarraipena.

EKAINAK 24 OSTIRALA

11:00 Meza nagusia.

Meza ondoren, 1970. urteko Soka Dantzako kideei omenaldia.

12:30 Toka txapelketa.

18:00 Buruhandiak.

19:00 Auzotarren Soka Dantza, ondoren sardina eta sagardo dastaketa.

23:30 "Trikidantz" taldea.

EKAINAK 25 LARUNBATA

Goizean, Oilasko Biltzaileen irteera.

14:00 Oilasko Biltzaileen bazkaria.

16:00 Mus txapelketa (16:30 izen ematea itxiko da).

18:00 Buruhandiak.

19:00 Auzotarren arteko patata tortila lehiaketa.

24:00 "Etxabe Anaiak"ekin erromeria.

EKAINAK 26 IGANDEA

10:00 Krosa.

12:00/14:00 Umeen jolasak.

16:30 Tailerrak eta jokoan jarraipena, ondoren txokolatada.

20:00 Buruhandiak.

Oharra: Eguraldi ona eginez gero, mangera aterako da.

Musikaren txokoa !



Piztia hirira iritsi da

Kuraia taldearen disko berria salgai dago jada: "Piztu da Piztia". 10" biniloan eta CDan argitaratua izan dena.



"Kuraia" eta "Iluntasunari Barre" diskoen eta bira luze, izerditsu eta jendetsuen ondoren, atsedenerako tartea hartu zuten. Baina atsedena ez zen erabatekoa izan. Hizpide dugun lana

argitaratzeko denbora hartu dute behintzat.

Kuraiaren hirugarren grabazioa iraupen laburrekoa da (20 minutu), eta sei kantuk eta sarrera batek osatzen dute.

Lehen diskoko giroa

Lan honetan, lehen diskoaren freskotasuna eta bapatekotasuna berreskuratu ditu laukoteak, "Iluntasunari barre" bigarren lanean soinu trinkoagoak, hertsiaigoak eta astunagoak jorratu ondoren.

Egin kontu !

Immersorekin oporretara

Aurreko alean aipatu genuen bezala, Immersorekin antolatzen duen opor programa martxan da. Izena emateko epea zabalik dago baina ekainaren 30ean amaituko da.

Aurreko urteetan parte hartu dutenek etxean bertan jasoko dute eskaera egiteko inprimakia. Baina lehenengo aldiz joan nahi dutenek udaletxeko Gizarte Zerbitzuetatik pasa behar dute inprimaki hori jasotzera.

05/06 ikasturtean, 880.000 per-



EKAINAREN 30EAN AMAITUKO DA IZENA EMATEKO EPEA.

tsona baliatuko dira oporraldi hauetaz. Aurten, lehen aldiz, Andorra, Frantzia eta nazioarteko beste herri batzuk bisitatzeko aukera izango da.

Larazaintza
sontak
URTINEA
urtinea@euskalnet.net
Loreak
koroak
Landareak
San Esteban
943 362 255
943 366 054 fax

LABE GOXO
Okindegia - Gozotegia

Ondo pasa Santixabelak
Kale Nagusia, 2
Telf: 943 37 33 48

LAUKOTE
Ondoko pasari



urtebetetzeko meriendak
ENKARGUBIDEZKOTARTAK
SU-EGUNREKOGIA
OPILAK



Puntapax kalea, 16 - behea (Artzabal)
Telefonoa: 943 36 09 80

**ETUMETA
EUSKALTEGIA**



Euskara klaseak
uztailean
.maila guztiak
.ordutegi ezberdinak

Usurbilgo udalaren dirulaguntzaz

943 372 001

Kale Nagusia, 43 behea Usurbil

USURBIL AUTOAK
ZERBITZU OFIZIALA




Ondo pasa Santixabelak!



KOTXEEN SALMENTA ETA KONPONKETA



Km.0 kotxeak eta selection



Tel: 943 361 079
Faxa: 943 366 292
Aitezarra kalea, 1
Zumartegi industrialdea

edertu!



Depilazioa
Makilajea
Manikura
eguzki dutxoli

Zubiaurrenea 4, USURBIL
943 361 951

I
N
T
Z
A

betileen tintatzen
depilazioa
masajea



eska intza bereziak!

943 363 641
KALE NAGUSIA 8



Elexpe
ile apaindegia

Betileen tintaketa
eta permanenten
Estetika
Solariuma
Tatuak

ESTETIKA
ZENTROA

Muna Lurra 2
943 370 462

TXARO

ile apainketa
zutikako solariuma
eska ezazu bonoa!



Etxebeste 3 - 943 371 685

L
LI
OL
I
ZARRALDE

Kolore, mozketak eta onda
moldeatuetan azken
teknikak



Solarium bonoa 35€
Manikura osoa 7€
Pedikura osoa 13€




Zubiaurrenea 5-B 943 361 971

SAIDA

ile apainketa
betileen tintaketa



prezio bereziak jubilatueri!

Kalezar - 943 372 952

LOURDES
estetika zentroa



LARRAÑAGA

Depilazioa
laser, elektrikoa
eta ohikoa
Solarium
UVA gabeko bronzetia
15min. tan 8 egunerako!

Irazu 12 behea USURBIL - 943 362 887



ILE APAINDEGIA

Solarium eta
depilazioak

Kale Nagusia 2 - 943 372 844



Agate
ESTETIKA ZENTROA

depilazioa
aurpegiko
tratamendua
manikura
pedikura
solariuma
makilajea

Nagusi 51 - Lasarte-Uria 943 370 549



M. Karmen Esnaola

LURRINDEGIA
ESTETIKA
KONPLEMENTOAK

ZUBIAURRENEA 2 - 943 362 565